

/2020 FORU AGINDUA, aren (e)koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 20ko 26/2012 Foru Agindua aldatzen baita. Haren bidez, Euskara (Nafarroa) irakaskuntza espezialitatea ezarri zen maisu-maistren kidegoan, dagozkion eginkizunak betetzeko Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, 92. eta 93. artikuluetan, ezarri zuen zer baldintza zeuden Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakaskuntza emateko.

Eginkizunak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan betetzen dituzten maisu-maistren kidegoko irakaskuntza espezialitateak ezarri zituen azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuak. 2.2 artikulua ezarri zuenez, irakaskuntza espezialitateak dira, hartan ezarritakoez gain, hizkuntza koofizialei dagozkienak, hala arauturik duten autonomia erkidegoetan.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntzako kontseilariak martxoaren 20ko 26/2012 Foru Agindua eman zuen, eta haren bidez Euskara (Nafarroa) irakaskuntza espezialitatea ezarri zen maisu-maistren kidegoan.

Ekainaren 27ko 9/2017 Foru Legearen bidez, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatu ziren. Lege horren xedapen gehigarri bakarrean ezartzen denez, "Euskararen Foru Legea aplikatzearen ondorioz garatu edo xedatzen diren xedapen eta egintza guztien gaztelaniazko testua izendapen berri

horretara egokituko da, eta, hala, "eusker" izendapen berria erabiliko da "vascuence" hitzaren ordez".

Euskarari lotutako terminologia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eremu guztietan bateratzeko, egokitzen da martxoaren 20ko 26/2012 Foru Agindua aldatzea, eta, horrenbestez, espezialitatearen izena ere bai: gaztelaniaz "Vascuence (Navarra)"ren ordez, "Euskera (Navarra)" erabiliko da.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1.g) artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

Artikulu bakarra. Gaztelaniazko "Vascuence (Navarra)" espezialitatearen izena aldatzea.

1. Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 20ko 26/2012 Foru Aginduan ezarritako gaztelaniazko "Vascuence (Navarra)" espezialitatearen izena aldatuko da, eta, horren ordez, "Euskera (Navarra)" erabiliko da.

2. Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 20ko 26/2012 Foru Aginduan gaztelaniaz "Vascuence (Navarra)" aipatzen denean, "Euskera (Navarra)" aipatzen dela ulertuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen gehigarri bakarra. Gaztelaniazko "Vascuence (Navarra)" espezialitateko funtzionarioak eta kontratuak.

1. Gaztelaniazko "Vascuence (Navarra)" espezialitateko irakasle funtzionario titularrak "Euskera (Navarra)" espezialitateko titular bihurtuko dira.

2. Foru agindu honek indarra hartzean gaztelaniazko "Vascuence (Navarra)" espezialitatean indarrean dauden kontratuek indarrean jarraituko dute, horiek aldatu behar izan gabe.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta hogeikoaren(e) (a)n

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui